

## Abentura amets ezkur



### **Zalakain abenturazalea**

Jatorrizko izenburua: *Zalacáin el aventurero*

Egilea: Pio Baroja

Itzultzailea: Koro Navarro

Argitaratze urtea: 2006

Argitaletxea: Alberdania&Elkar

### KARLOS DEL OLMO

Aurten, Eusko Jaurlaritzak bultzatuta, Baroja hil izanaren 50. urteurrena gogorarazteko Literatura Unibertsala bilduman agerturiko *Zalakain abenturazalea* eta *Jakintzaren arbola* obrez gain, lehendik euskaraz baziren beste lan itzuli bakan batzuk, besteak beste, honako hauek:

- Altzateko Jaun. Agirre'tar Maria Dolores eta Yurramendi'tar Felipe'k euskeratua. Donostia. Edili. 1984.
- Altzateko Jaun-en kontu zaharrak. Itzulpena: Patxi Apalategi. Donostia. La Primitiva Casa Baroja. 1986.
- Bizi terraltsuak. Itzulpen egokitua: J. A. Agirre Begiristain. Donostia. Luis Haranburu. 1982.
- Ihauterietako erokeriak. Itzulpena: Mikel Azurmendi. Donostia. La Primitiva Casa Baroja. 1986.
- Ipuiñak. Aita S. Onaindiak euzkeraztu ditu. 1987.
- Itxasoa laño dago... Xanti Andia itxas-gizonaren bizitza ta kezak. Yon Etxaidetarrak euskerara emana. Zarautz. Itxaropena.1959.
- Lur ilunak. Itzulpen egokitua: J.A. Agirre Begiristain. Donostia. Haranburu. 1982.
- Urtubiko dama eta beste zenbait istorio. Donostia. Txertoa. 1985.
- Urtubiko dama. Itzulpena: J.A. Agirre Begiristain. Alegia. Hiria. 1999.
- Xanti Andiaren kezak. Itzulpena: Jon Etxaide-Itharte. Donostia. Hordago. 1984.

Ariketa polita gertatzen da urteak joan urteak etorri Barojaren lanen itzulpengintzak, bere laburrean, izan duen bilakaera aztertzea, batez ere itzul moldeei dagokienez. Koro Navarrok eta Josu Zabaletaren XXI. mendeko lehenak dira (espero dezagun azkenak ez izatea, belaunaldi bakoitzak, adituek diotenez, bere erara itzuli behar omen baititu klasikoak) eta eredugarri gertatzen dira, nahiz eta enkarguaren presak, beharbada, arrakalatxo edo gandutxo batzuk erantsi dizkion jatorriz euskaraz idatzita dirudien Koro Navarrok itzulpenari.

Adituek beti ikusi izan dute Barojarengan "euskal" idazle erdaldun bat edo, bestela esanda, erdaldun idazlerik euskaldunena, eta ezin ukatuzkoa da *Zalakain abenturazalea* oso loturik dagoela euskal paisaia, memoria eta pentsamoldeei. Baroja, garai haien ordezkari edo ikur moduan, independentea, ezkorra eta eszeptizismoak joa zen, baina haren narrazioetan begiratu egiazko eta bihotz-erdiragarri bat datza.

Piori aurpegiatzen izan diote estilo narras eta utzia, euskal usainekoa omen den idazketa erabiltzea; estilo berezi hura ia bertsolari eleberri edo kontakizun bihurtu da euskaraturiko testutan eta, jakina, balizko narraskeria galduta, euskal estilo natural bilakarazi

du Koro Navarroren itzulpen airosak. Nolanahi ere den, sinpletasuna azalekoa baino ez bide da Barojaren eleberrian.

1928an *Zalakain abenturazalea* eleberria zinemara eroan zuten, nobelagileak berak eta haren anaia Ricardok pertsonaia bana jokatu zutelarik. Kororen itzulpena abiapuntu, ederra litzateke hura berreskuratzea eta euskaraz janztea, omenaldi garai hauek igarota, Barojaren inguruko guztiak euskal kontzientzietan berriro hautsa batzen hasi aurretik.

Barojak (Zalakainen azalaz beztiturik ere?), bere burua liberal erradikaltzat zuen; indibidualista eta anarkista zela zioen. Ezer baino lehen, elizaren aurkari omen zen, bigarrenik, estatuaren arerio. Zein nagusitzen, harena.

Mitifikazioak eta mistifikazioak —beharbada Barojari erakusten zuen jarrera independentea inoiz barkatu ez ziotenek bultzatuta— idazlea bere azken bizi urteotan gizon triste eta zapuztu moduan agerrarazi dute, nahiz eta haren testuei poesia eta xamurtasuna oparo zerizkien.

Bere busto baten aurrean esan omen zuenez, gerokoek idazlea noizbait ahazten bazuten ere, pozik egongo zen, halere, bustoari (obrari?) etorkizunean begiratzen zion jendeak pentsatuz gero gizon hura egiazale amorratua izan zela, hipokrisia eta gezurra gorrotatzen zituela eta, sasoi hartan besterik bazeritzoten ere, herria bihotzetik maite zuen baskoa zela. Ez ote zuen gauza bera esango Zalakainek?

"Bere izena dedin  
honratu gaur gero,  
aurrena Euskal Errien  
gloriya izateko".